


# PATRIKARAKO HITANOA



# AURKIBIDEA

## SARRERA

Usurbilen hitanoa suspertzeko egitasmoa .....	4
<i>Patrikarako hitanoa</i> liburuxka .....	4
Eskerrak ematea .....	5

## HITANOA: LAGUNARTEKO TRATAMENDUA

Hiru tratamendu .....	6
Hitanoak zer ematen duen .....	6
Hika, aditz alokutiboak .....	7

## ERABILERA OHITURAK

Norekin egin dezakegu hika? .....	8
Egungo erabilera okerrak .....	9

## ADITZ GUZTIAK HIKA?

ZU-ren orde, beti HI .....	10
Mendeko esaldiak .....	11
Baldintzak, galderak eta aginduak .....	12

## ADITZ TAULAK

Aditz nagusiak .....	13
Tauletako aditzak nola ekarri gurera .....	13

# AURKIBIDEA

ADITZ LAGUNTAILEAK:	<b>NOR</b> .....	15
	<b>NOR-NORI</b> .....	16
	<b>NOR-NORK</b> .....	17, 18
	<b>NOR-NORI-NORK</b> .....	19, 20, 21, 22

ADITZ TRINKOAK:	<b>EDUKI</b> .....	23
	<b>ETORRI</b> .....	24
	<b>IBILI</b> .....	25
	<b>EGON</b> .....	26
	<b>JOAN</b> .....	27
	<b>JAKIN</b> .....	28
	<b>EKARRI</b> .....	29
	<b>ERAMAN</b> .....	30
	<b>ESAN</b> .....	31

BESTE ADITZ BATZUK:	<b>Baldintza eta ondorioa</b> .....	32
	<b>Ahalera</b> .....	33
	<b>Agintera</b> .....	34

# SARRERA

## Usurbilen hitanoa suspertzeko egitasmoa

Euskal Herrian bezalatsu, Usurbilen ere atzerabidean da hitanoa. Gazteen artean zertxobait egiten den arren, hitanoz naturaltasunez hitz egiten duten herritar gehienak 65 urtetik gorakoak dira. Transmisioan etena izan da oro har, baina bereziki nokari eragin dio atzerakadak: ezagutza eta ohitura falta nabarmenagoa da emakumeen artean zein emakumeekin aritzean.


Halaxe hasi ginen Usurbilen zer egin pentsatzen. Lehenik, hika ikastaroak antolatu genituen, "Hikalagun" proiektua martxan jarri genuen ondoren... Eta, bide horretan, Oñatiko "Ingo Xonau!" elkartearen eta Durangaldeko berbalagunek sortutako liburuxken berri izan genuen. Haien lekukoa hartu genuen, beraz, eta geure liburuxka sortzea erabaki!

## Patrikarako hitanoa liburuxka


Hitanoan erraz murgiltzeko tresna da Patrikarako hitanoa liburuxka hau. Bertan hitanoari buruzko informazio orokorra eta adizki nagusiak, erabilienak, aurkituko dituzu. Horretarako, Durangaldeko Poltsikorako hitanoa liburuxka izan degu oinarri. Hala ere, edukiak antzekoak izan arren, gurean forma orokorragoak bildu ditugu. Usurbilen bertan adizkiak zerbait aldatzen direla kontuan hartuta, udalerrri osorako baliagarri izan litezkeen formak bildu nahi izan ditugu. Hortaz, liburuxka honetan jasota dagoena bakoitzak ekarri beharko du lekuan lekuko ahoskerara.

## Eskerrak ematea

Sarrera honi bukaera emateko, eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau burutzeko ezinbesteko laguntza eman digutenei: “Ingo xonau” eta Eneko Barrutiari, eurek jarri baitzituzten oinarriak; Eñaut Aiertzaguenari, liburuxka marrazkiekin dotoretzeagatik; AEKri eta Durangaldeko berbalagunei, lanak errazteagatik; Rosa Zubeldiari ikastaroak eman ez ezik, bere ezagutza liburuxka honetan txertatzeagatik; Kar-mele Urdanpilletari, liburuxkaren edukiak gurera ekartzeko erronkari heltzeagatik; Euskara Aholku Taldeko kide guztiei, euskararen alde euren gogo, indar eta babesaldi aldiro eskaintzeagatik; ikastaroetan parte hartu duten guztiei; eta, azkenik, gurean hitanoa bizirik mantendu dezuen guztioi, zuen jakituririk gabe, proiektu hau ez baikenuen gauzatuko.



Jende asko ibili  
den lanean hau  
guztia  
antolatzeko!



Eta lana  
beti dek  
eskertzekoa!

# HITANOA: LAGUNARTEKO TRATAMENDUA


## Hiru tratamendu

Euskaraz hiru tratamendu edo erregistro erabili izan dira:

1. Berorika, galduta dagoena: errespetu edo begirunezkoa (apaizari, sendagileari, maisuei, zenbait etxeetan gurasoei eta aitona-amonei...).
2. Zuka, gehien erabiltzen dana: garai batean errespetuzkoa izan bazan ere, aspaldian edozein egoeratarako balio du.
3. Hika: lagunartekoa, informala.

## Hitanoak zer ematen duen?

Bizitasuna, aberastasuna, konfiantza, konplizitatea, gertutasuna, identitate-marka, berdintasunaren aldeko keinua, gure hizkuntzaren ezagupidea, komunikaziorako beste baliabide bat...




Lagunengana  
gerturatzeko modu  
egokia dek hitanoak!

Horixe  
den!

## Hika, aditz alokutiboa

Hika, aditza beti izaten da alokutiboa; hau da, hitanoz hasten bazera, erregistro berean eutsi behar zaio. Ezin esan, esate baterako: “hi etorri haiz eta gu ere etorri gera”. Horren ordez, “hi etorri haiz eta gu ere etorri gaituk/gaitun” esan beharko da. Gainera, kontuan hartu behar degu entzuleak markatzen duela adizkera alokutiboa eta ez hiztunak. Beraz, aurreran daukaguna gizonetako ala emakumetako izan, erabiliko degun adizkera ez da berdina izango. Esate baterako:

- **Gaur ez gaituk joango** (gizonetakoari)
- **Gaur ez gaitun joango** (emakumetakoari)



# OHITURAK ERABILERAN

## Norekin egin genezake hitanoz?

Ohituraz, berdinen artean eta konfiantza-giroan erabili ohi da. Baina, hori bai, gaur egun salbuespenak gero eta gehiago izaten dira; ohituretan aldaketak nabari dira, hitanoaren biziraupenagatik.

Tradizioan erabilera-ohitura hauek izan dira hitanoan:

## EZ

- Gurasoei eta askoz nagusiagoak diranei ez.
- Ezezagunei ez.
- Giro oso formaletan ez.
- Haurrei bai, ez ordea oso tikiak direnei. Koskortu artean ez.
- Senar-emazteen artean ez.
- Hedabideetan, hitzaldietan, jendaurreko agerraldietan... normalean ez.



Nik ez det nika egiterik nahi elkar gehixeago ezagutu arte.



Konforme, lasai!



## BAI

- Guraso eta nagusiek seme-alabei eta gazteei, bai.
- Anai-arreben artean, bai.
- Adin berdintsukoen artean eta gazteagoei bai, konfinantzarik baldin badago.
- Lagunen artean, bai.
- Animaliei, bai.
- Nork bere buruari, bai.

### Gaur egungo erabilera okerrak:

- Neskei mutilen moduan hitz egitea.
- Zu eta hi nahasturik erabiltzea.
- Hitanoko adizkiak ez dagozkienean erabiltzea; esate baterako, mendekoetan.

Gure artian ere hika egin behariko diragu. eta guri noka egin dezagutela aldamikatu!

Bai horixe!



# ADITZ GUZTIAK HIKA?

## ZU-ren ordeaz, beti HI

Hitanoz ari geranean, bigarren pertsona Hi da, ez ZU:

Zu etorri zera > Hi etorri haiz

Horrelakoetan, beti erabiliko ditugu hikako aditz-formak; baita mendeko esaldietan ere.

Mendira joan ez **haizelako**, damututa **hago**

1. eta 3. pertsonetako adizkiak ere hikako formetan erabiltzen dira:


NI ..... Gaur berandu jaiki **nak/nan** (nauk/naun)

HURA ..... Mikel ere etorriko **dek/den**

GU ..... Egingo al **diagu/dinagu**

HAIEK ..... Haiek guri begira **zeudek/ zeuden**

ZUEK beti da zuek; izan ere, 2. pertsonaren pluraleko adizkiak hika erabiltzea ezinezkoa da.



Ipa Itziar!  
Zer moduz  
harbi?

Triste! Ezin  
baitizuet bioi  
batera hika  
egin!

## Mendeko esaldiak

Bi esaldi alkartzen direnean, bat mendekoa izaten da eta nagusia bestea.

Hitanoz ari geranean, esaldi nagusiko aditza hikako moduan erabiltzen degu (ZUEK ez bada). Mendeko esaldiko aditza, ordea, HI danean baino ez da erabiltzen hikako moduan.

- Etzekiat zer egin behar dean lanik gabe geratzen **banaiz**.
- Gose **dalako** etorri **dek/den** hain azkar
- Zoratuta **gaudela** esan **zidatek/zidaten**

Gehienetan erraz jakiten da aditza mendekoa dan edo ez, bukaeran seinaleren bat izaten baitu (-ELA, -ELAKO, -ENEAN...), baina ez beti.

- Maddik egin **zuen** lanaren ordaina oraindik jasotzeko **zeukak/zeukan**

Ederra egin  
den, Miren!

Badaezpadako sustoa  
hartuko din lkerrek Hitanoko  
liburuxka kendu dionela  
konturatzen danean.



## Baldintzak, galderak eta aginduak


Toki guztietan ez badira erabiltzen ere, gure inguruan hikako formak erabiltzen dira baldintzazkoetan, galderetan, harridurazkoetan eta aginduetan.

BALDINTZA ..... Etortzen **badek/baden**, ondo pasako **dik/din**

GALDERA ..... Zer esan **dik/din**? Etorriko al **dek/den**?

HARRIDURA..... Horrek **zauzkak/zauzkan** gibelak!

AGINDUA..... Hi, **goazemak/goazeman** etxera!



## Genero-markarik gabeko aditzak

Badaude hikako forma batzuk, mutilentzat eta neskentzat berdinak direnak: haiz, hago, hator, habil... genero-markarik ez duten aditzak dira eta bientzat balio dute.

# ADITZ-TAULAK

## Aditz nagusiak

Gehien erabiltzen diran aditzak bildu ditugu liburuxka honetan, ez danak. ZUEK pertsonari dagokion formarik ez degu hartu, hikako formarik ez baitauka. Beste alde batetik, kontuan hartu beharrekoa da ZU guztiak HI bihurtzen dirala.

## Tauletako aditzak gurera nola ekarri?

Bokal asko ikusiko dituzue aldatuta liburuxka honetan. Horiek bere horretan esaten dira, baina ezezkoetan EZ-en ondoren “b-d-g” hizkiak “p-t-k” gertatzen dira.

ez + dek/den = **eztek/ezten**

ez + goazik/goazin = **ezkoazik/ezkoazin**

ez + bazoazik/bazoazin = **ezpazoazik/ezpazoazin**

la iker, animo! Letrak  
aldatzen badituk ere,  
hik asmatuko dek nola  
hitz egin!



Bestelako aldaketa batzuk ere egin beharko ditugu, hitanoz ari ez geranean ere egiten ditugunak. Adibidez, bi bokal ageri diranean, bakarra esan; bokal arteko "b-d-g" galdu... Alegia, kontrakzioak gure hizkeran ohikoak izaten diran eran egingo ditugu hitanoz ere:

Esango diet > esangoiet moduan egiten diranak, adibidez.


Nolanahi ere, aldaketa horiek danak ez dago zertan tauletan jaso. Honatx, idatzitik ahozkoa egiten ditugun aldaketen beste zenbait adibide:

Emango diat/dinat > **emangoiat/emagoinat**

Egin ezak/ezan > **einzak/einzan**

Egingo diagu/dinagu > **ingoiau/ingoinau**

Ez zaudek/zauden > **etzaudek/etzauden**



Ordun, hemen letra  
hauek jan eitten  
dituk. eztek hala lker?

Hori dek!  
Emangoiat hitanoz  
klasetxo bat  
bestela lasai!

## Orain aldia

naiz > nak/nan (nauk/naun)  
 zara > haiz  
 da > dek/den  
 gara > gait(t)uk/gait(t)un  
 dira > dit(t)uk/dit(t)un

## Lehen aldia

nintzan > ninuan/ninunan  
 zinan > hitzan  
 zan > huan/hunan (zuan/zunan)  
 ginan > ginuan/ginunan  
 ziran > zituan/ zitunan



## Orainaldia (Objektu singularra)

zait > zaidak/zaidan  
 zaizu > zaik/zain  
 zaio > zaiok/zaion  
 zaigu > zaiguk/zaigun  
 zaie > zaiek/zaien

## (Objektu plurala)

zaizkit > zaizkidak/zaizkidan  
 zaizkizu > zaizkit/zaizkin  
 zaizkio > zaizkiok/zaizkion  
 zaizkigu > zaizkiguk/zaizkigun  
 zaizkie > zaizkiek/zaizkien

## Lehenaldia (Objektu singularra)

zitzaidan > zitzaidaan/zitzaidanan  
 zitz aizun > zitz aikan/zatzainan  
 zitz aion > zitz aioan/zitz aionan  
 zitz aigun > zitz aiguan/zitz aigunan  
 zitz aien > zitz aiean/zitz aienan

## (Objektu plurala)

zitz aizkidan > zitz aizkidaan/zitz aizkidanan  
 zitz aizkizun > zitz aizkian/zitz aizkinan  
 zitz aizkion > zitz aizkioan/zitz aizkionan  
 zitz aizkigun > zitz aizkiguan/zitz aizkigunan  
 zitz aizkien > zitz aizkiean/zitz aizkienan

Heldu al zain  
 bikotekidiaren  
 mezua?



Heldu zaidan,  
 bai!



## NI

nauzu > nauk/naun  
 nau > (naik/nain) natxiok/natxion  
 naute > (naitek/naiten) natxiek/natxien

## ZU/HI

zaitut > haut/haunak  
 zaitu > hau  
 zaizkigu > haugu  
 zaituzte > haute

## HURA


det > di(a)t/dinat  
 dezu > duk/dun (dek/den)  
 du > dik/din  
 degu > diau/dinagu (diu/diñau)  
 dute > ditek/diten/ (diyek/diñe)

## GU


gaituzu > gaituk/gaitun  
 gaitu > gaitik/gaitin (gatxik/gatxin)  
 gaituzte > gatxiztek/gatxizten

## HAIEK

ditut > dizkiat/dizkinat (dizkit/dizkiñat)  
 dituzu > dituk/ditun  
 ditu > dizkik/dizkin  
 ditugu > dizkiatu/dizkiñatu



Ondo ikusten haut  
 egun hauetan.



Bai Ez dinat  
 eta hortik  
 zinar dabilen  
 xomorro hori  
 harrapatu!

## NI

ninduzun > nindukan/nindunan  
 nindun > ninduan/nindunan  
 ninduten > ninduaten/nindunaten

## ZU/HI

zintudan > hindudan/hindudanan  
 zintun > hindun/hindunan  
 zintugun > hindugun/ hindugunan  
 zintuzten > hinduten/hindutenan

## HURA

nuen > ni(a)n/niñan  
 zenuen > huan /hunan  
 zuen > zi(a)n/ziñan  
 genuen > giñin/geniñan  
 zuten > ziten/zitenan

## GU

gintun > gintuan/gintunan  
 gintuen > gintuan/gintunan  
 gintuzten > gintuaten/gintunaten

## HAIEK

nituen > nizkin/nizkiñan  
 hituen > hittun/hittunan  
 zituen > zizkin/zizkiñan  
 genituen > genizkin/genizkiñan



## NIK

dizut > diat/dinat  
 diot > ziot/zionat  
 diet > ziet/zienat

## ZUK/HIK

didazu (diazu) > didak/didan  
 diozu > diok/dion  
 diguzu > diguk/digun  
 diezu > diek/dien

## HURA

dit > zaiak/zaian (ziak/zaian)  
 dizu > dik/din  
 dio > ziok/zion  
 digu > zaiguk/zaigun  
 (ziguk/zigun)  
 die > ziek/zien

## GUK

dizugu > diagu/dinagu  
 diogu > zioagu/zionagu (zioau/zionau)  
 diegu > zieagu/zienagu (zieu/zienau)

## HAIEK

didate > ziatek/ziane  
 dizute > diate/dinate  
 diote > ziotek/zione (zieten)  
 digute > zigutek/ziguten  
 diete > zietek/ziene (zieten)



## NIK

dizkizut > dizkiat/dizkinat  
dizkiot > zizkiot/zizkionat  
dizkiet > zizkiet/zizkienat

## ZUK/HIK

dizkidazu > dizkiak/dizkian  
dizkiozu > dizkiok/dizkion  
dizkiguzu > dizkiguk/dizkigun  
dizkiezu > dizkiek/dizkien

## HARK

dizkit > zaizkiak/zaizkian  
dizkizu > dizkik/dizkin  
dizkio > zizkiok/zizkion  
dizkigu > zaizkiguk/zaizkigun  
dizkie > zizkiek/zizkien

## GUK

dizkizugu > dizkiagu/dizkinagu  
dizkiogu > zizkiou/zizkionau  
dizkiegu > zizkieu/zizkienau

## HAIEK

dizkirate > zaizkiatek/zaizkiaten  
dizkizute > dizkiate/dizkinate  
dizkiote > zizkiotek/zizkione (zizkioten)  
dizkigute > zizkigutek/zizkiguten  
dizkiete > zizkietek/zizkiene (zizkieten)



Baratzako  
letxuak mahai  
gainean  
utzizkinat,  
ikusi al ditun?

## NIK

nizun > nian/ninan

nion > nitxon/nitxonan

nien > nitxen/nitxenan

## ZUK/HIK

zenidan > hidan/hidanan

zenion > hion/hionan

zenigun > higon/higunan

zenien > hien/hienan

## HURA

zidan > zitxaian/zitxaianan

zizun > zian/zinan

zion > zitxon/zitxonan

zigun > zitxaigun/zitxaigunan

zien > zitxen/zitxenan

## GUK

genizun > genian/geninan(giñin/geniñan)

genion > genitxo(a)n/genitxonan

genien > genitxen/genitxenan

## HAI EK

zidaten > zitxaiaten/zitxai(a)tenan

zizuten > ziaten/ziatenan

zioten > zitxoten/zitxotenan

ziguten > zitxaiguten/zitxaigutenan

zieten > zitxaieten/zitxaietenan

Egur ederra eman  
genienan beste haiet  
lehenbiziko partidari. Ez  
al den uste?



## NIK

nizkizun > nizki(a)n/nizkiñan  
 nizkion > nizkitxo(a)n/nizkitxonan  
 nizkien > nizkitxea(a)n/nizkitxenan

## ZUK/HIK HAIEK

zenizkidan > hizkidan/hizkidanan  
 zenizkion > hizkiyo(a)n/hizkiyonan  
 zenizkigun > hizkigun/hizkigunan  
 zenizkien > hizkiye(a)n/hizkiyenan

## GUK

genizkizun > genizkian/genizkiñan  
 genizkion > genizkitxon/genizkitxonan  
 genizkien > genizkitxe(a)n/genizkitxenan

zizkidaten > zitxaizkiaten/zitxazkidatenan  
 zizkizuten > zizkiaten/zizkinaten  
 zizkioten > zizkitxoten/zizkitxotenan  
 zizkiguten > zitxaizkiguten/zitxaizkigutenan  
 zizkieten > zitxaizkietean/zitxaizkietenan

## HARK

zizkidan > zitxaizkian/zitxaizkianan  
 zizkizun > zizki(a)n/zizkinan  
 zizkion > zizkitxo(a)n/zizkitxonan  
 zizkigun > zitxaizkigu(a)n/zitxaizkigunan  
 zizkien > zizkitxe(a)n/zizkitxenan



Lasai!  
 Nekanek ekarri  
 zizkidanan letxuez  
 Egingo dinat  
 bazkaritarako  
 entsaladatxo  
 bat!

**Orainaldia (Objektu singularra)**

daukat > za(u)kat /za(u)kanat  
 daukazu > daukak/ daukan  
 dauka > za(u)kak /za(u)kan  
 daukagu > zakau /zakanau  
 daukate > zakatek /zakaten, zakane

**Orainaldia (Objektu plurala)**

dauzkat > za(u)zkat/za(u)zkanat  
 dauzazu > da(u)zka/da(u)zkan  
 dauzka > za(u)zka/za(u)zkan  
 dauzagu > za(u)zkau/za(u)zkanau  
 dauzkat > za(u)zka/za(u)zkanat/  
 za(u)zkanat

**Lehenaldia (Objektu singularra)**

neukan > nitxakan /nitxakanan  
 zeneukan > heukanan /heukan  
 zeukan > zitxakan/ zitxakanan  
 geneukan > genitxakan /genitxakanan  
 zeukaten > zitxakaten /zitxakatenan

**Lehenaldia (Objektu plurala)**

neuzkan > nitxazkan/nitxazkanan  
 zenezkan > heuzkan/heuzkanan  
 zeuzkan > zitxazkan/zitxazkanan  
 geneuzkan > genitxazkan/genitxazkanan  
 zeuzkaten > zitxazkaten/zitxazkatenan

Itziar, guk  
 etzaukanau  
 baterako argazkirik  
 ez ten?



Ez al daukak  
 aurreko batean  
 ateratakoa?  
 Beste bat  
 aterako diagu!

## Orainaldia

nator > natorrek/natorren (natxatorrek/  
natxatorren)

zatoz > hator

dator > zatorrek/zatorren

gatoz > gatoztik/gatoztin (gatxatozek/  
gatxatozen)

datoz > zatoztik/zatoztin

## Lehenaldia

nentorren > nitxatorre(a)n/nitxato-  
rrenan

zetozen > hentorren

zettorren > zitxatorren/zitxatorrenan

gentozen > gintxatozen/gitxatozenan

zetozen > zitxatozen/zitxatozenan)





## Orainaldia

nabil > nabilek/nabilen  
 (natxabilek/natxabilen)  
 zabilta > habil  
 dabil > zabilek/zabilen  
 gabilta > gabiltzak, gabiltzik/gabiltzan-gabiltzin  
 (gatxabiltzak/gatxabiltzan)  
 dabilta > zabiltzik-zabiltzak/zabiltzin-zabiltzan

## Lehenaldia

nenbilen > nitxabilen/nitxabilenan  
 zenbiltzan > habilen/habilenan  
 zebilen > zitxabilen/zitxabilenan  
 genbiltzan > gintxabiltzan/ gintxabiltzanan  
 zebiltzan > zitxabiltzin/zitxabiltzanan



Zertan  
 habil!



Datorren  
 astebururako  
 plana pentsatzen  
 natxabilek!

# EGON

## Orainaldia

nago > natxiok/natxion (nagok/nagon)

zaude > hago

dago > ziok/zion (za(g)ok/za(g)on)

gaude > gatxek/gatxen(e) (gatxaudek/  
gatxauden)

daude > zaudek/zauden(e)

## Lehenaldia

nengoen > nitxo(a)n/nitxonan

zeunden > hengoen/hengonan

zegoen > zitxo(a)n/zitxonan

geunden > gintxaude(a)n/gintxaudenan

zeuden > zitxaude(a)n/zitxaudenan



## Orainaldia

noa > niak/nian (natxiek/natxien)

zoaz > hoa

doa > ziek/zien (zijoak/zijoan)

goaz > goaztik/goaztintin

doaz > ziaztik/ziaztin (zijoazek/zijoazen)

Zinera niak, ba  
al hator?



## Lehenaldia

nindoan > nitxien/nitxienan

zindoazen > hindoan/hindoanan

zihoan > zitxien/zitxienan

gindoazen > gintx(i)aztin/gitxiaztinan

gindoazenan

zihoazen > zitx(i)aztin/zitx(i)aztenan



Etixerantz  
nindoanan, baina  
animatuko  
naun bai!

## Orainaldia (Objektu singularra)

dakit > zakiat/ zakinat (zekit/zekinat)  
dakizu > dakik/dakin  
daki > zakik/zakin (zekik/zekin)  
dakigu > zakiagu/zakinagu (zekiagu/zekinagu)  
dakite > zakitek/zakiten (zekitek/zekiten)

## Orainaldia (Objektu plurala)


Dakizkit > zakizkiat/zakizkinat (zekizkiat/  
zekizkinat)  
dakizkizu > dakizkik/dakizkin  
dakizki > zakizkik/zakizkin (zekizkik/zekizkin)  
dakizkigu > zakizkiagu/zakizkinagu (zekizkia-  
gu/zekizkinagu)  
dakizkite > zakizkitek/zakizkiten, zekizki-  
ne (zekizkitek/zekinkiten)

## Lehenaldia (Objektu singularra)

nekien > nekian/nekian  
zenekien > hekien  
zekien > zekian/zekian  
genekien > genekian/genekian  
zekiten > zekiaten/zekiaten

## Lehenaldia (Objektu plurala)

nekizkie > nitxazkin/nitxazkinan  
zenekizkien > hekizkien/hekizkinan  
zekizkien > zitxazkin/zitxazkinan  
genekizkien > genitxazkin/genitxazkinan  
zekizkiten > zitxazkiten/zitxazkitenan



Hik ba al dakin  
tresna honekin  
mezuak  
bidaltzen?

Bazekinat bai!  
Erakutsikoinat!

**Orainaldia (Objektu singularra)**

dakarkit > zakarki(a)k/zakarkinat  
 dakarkizu > dakarkik/dakarkin  
 dakarki > zakarkik /zakarkin  
 dakarkigu > zakarki(a)u/zakarkinau  
 dakarkite > zakarkitek/zakarkiten

**Orainaldia (Objektu plurala)**

dakarzkit > zakarzki(a)t/zakarzkinat  
 dakarzkizu > dakarzkik/dakarzkin  
 dakarzki > zakarzkik/zakarzkin  
 dakarzkigu > zakarzkiu/zakarzkinau  
 dakarzkite > zakarzkitek/zakarzkiten

**Lehenaldia**

nekarren > nekarkian/nekartzkiñan  
 zenekarren > hekartzan  
 zekarren > zekarkian/zekarniñan  
 genekarren > genekarkian/genekarkinan  
 zekarten > zekarkitean/zekarkitenan

**Lehenaldia (Objektu plurala)**

nekartzan > nekartzkian/nekartzkiñan  
 zenekartza > hekartzan  
 zekartzan > zekartzkian/zekartzkiñan  
 genekartzan > genekartzkian/genekartzkiñan  
 zekartzaten > zekartzkitean/zekartzkitenan

Zer daukan hik  
afaritarako?



Genero gutxi  
zakarkiat nik.



# ERAMAN

## Orainaldia (Objektu singularra)

daramat, damakit > zamakit/zamakinat  
daramazu, damakizu > damakik/damakin  
darama, damaki > zamakik/zamakin  
daramagu, damakiu > zamakiu/zamakinau  
daramate, damakite > zamakitek/zamakiten

## Orainaldia (Objektu plurala)

damazkit > zamazki(a)t/zamazkinat  
damazkizu > damazkik/damazkin  
damazki > zamazkik/zamazkin  
damazkiu > zamazkiu/zamazkinau  
damazkite > zamazkitek/zamazkiten

## Lehenaldia (Objektu singularra)

neraman > ne(r)amagian/ne(r)amakinan  
zeneraman > heraman/heramatzan  
zeraman > ze(r)amagian/ze(r)amakinan  
generaman > generamagian/generamakinan  
zeramaten > ze(r)amakitean/ze(r)amakitenan

## Lehenaldia (Objektu plurala)

neramatzan, neramazkin > ne(r)amaz-  
kian/ne(r)amazkinan  
zeneramatzan, zeneramazkin > he(r)  
amazkin/ heramazkinan  
zeramatzan, zeramazkin > ze(r)amaz-  
kian/ze(r)amazkiñan  
generamatzan, generamazkin > gene-  
ramazkian/generazmakiñan  
zeramatzaten, zeramazkiten > ze(r)  
amazkite(a)n/zeramazkitenan

Nora  
daraman  
hori?



Partidua  
jokatzeko geratu  
gaitun eta beste  
inork etzeraman  
baloirik

**Orainaldia (Objektu singularra)**

diot > zioat/zionat

diozu > diok/dion

dio > zio/zion

diogu > zioagu/zionagu

dute > ziotek/zioten

**Lehenaldia (Objektu singularra)**

nekarren > nekarkian/nekartzkiñan

hioen > hioen/hionan

zioen > zitxon/zitxonan

genion > genitxoan/genitxonan

zioten > ziotean/ziotenan

# BALDINTZA ETA ONDORIOA

## NOR

### ONDORIOA


nintzateke > niñuake/niñunake

zinateke > hitzake/hitzanake


litzateke > lukek/luken

ginateke > giñuake/giñunake

lirateke > lituzkek/lituzken



Ba al hator  
bizkjetan  
ibiltz.era?



Atertuko balu  
joango niñunake



## NOR eta NOR-NORK (bietan berdin)

### Oraina eta hipotetikoaren ere berdin

#### HURA

n(a)itteke > nintek/ninteken  
 za(i)ttezke > haiteke  
 leike > zitekek/ziteken  
 ga(i)ttezke > gintezkek/gintezken  
 littezke > zitezkek/zitezken

#### HAIEK

nitzake > nitzakek/nitzaken  
 zenitzake > hitzakek/hitzaken  
 litzazke > litzazkek/litzazken  
 genitzazke > genitzazkek/genitzazken  
 litzazkete > litzazketek/litzazketen

### Iragana

#### HURA

nezakeen > nezakean/nezakeenan  
 zenezakeen > hezakeen  
 zezakeen > zezakean/zezakenan  
 genezakeen > genezakean /kenan  
 zezaketen > zezaketean/zezaketenan

#### HAIEK

nitzakeen > nitzazkean/nitzazkenan  
 hitzakeen > hitzakeen/hitzakenan  
 litzazkeen > litzazkean/litzazkenan  
 genitzazkeen > genitzazkean/nan  
 litzazketen > litzazketean/litzazketenan

# AGINTERA

## NOR

zaitez > hadi

## NOR-NORK

(e)izkigun

hik-ni > nazak/nazan

hik-hura > ezak/ezan

hik-gu > gaitzak/gaitzan

hik-haiek > itzak/itzan


## NOR-NORI-NORK

hik-niri > (e)i(d)ak/eidan//eizkidak/eizkidan

hik-hari > (e)iok/(e)ion//(e)izkiok/(e)izkion

hik-guri > (e)iguk/(e)igun//(e)izkiguk/(e)izkigun

hik-haiei > (e)iek/(e)ien//(e)izkiek/(e)izkien



Testua: **Durangeldeko poltsikorako hitanoa liburuxkan oinarriturik**

Testuaren antolaketa: **Karmele Urdanpilleta eta Rosa Zubeldia**

Maketazioa: **limoiura.com**

Ilustrazioak: **Eñaut Aiertzaguena**

Sustatzaileak: **Usurbilgo Euskara Aholku Taldea eta Usurbilgo Udala**



Liburuxka deskargatu nahi baduzu:



Liburuxka hau %100 paper birziklatuarekin egina dago

Sustatzaileak

---



Usurbilgo Udala



**praktikatu**

mintzapraktika  
egitasmoak *aek*